01 02
SALBURUAKO AIREPORTUA

Salburua Vitoria-Gasteiz hiriko ekialdean kokatutako auzo bat da. Baina, XX. mende amaiera arte, zonaldea oraindik urbanizatu gabe zegoenean, aireportu bitxi bat eduki zuen. Hura “Aireportu Zaharra” izenarekin ezagutzen zen eta bere merkataritza jarduera nahiko eskasa izan zen.

Bere historia 1934. urtean hasi zen. Orduan, Komunikazio Ministerioak aireportu bat eraiki zuen aipatutako lurraldeetan, Madril-Irun errepide orokorretik gertu.

Interes orokortzat eta zerbitzu publikotzat jo zelarik, 1935eko irailaren 29an inauguratu zen “José Martínez de Aragón” (1895-1935) izenarekin, alegia; garai horretan hil zen Arabako hegazkingintzaren aitzindarienetariko bat.

Aireportu honek 950 metroko pista luzera eta 40 metroko zabalera zituen eta hegoaldean aipatu dugun Madril-Irun errepide orokorrarekin mugatzen zuen. Bi pista muturrak edo buruak 122 x 60 metroko zementuzko zabalgune batekin lotzen ziren, hegazkinak bertan aparkatzeko, bi pisten bitartez: bat 706 metrokoa (iparraldeko pista) eta beste bat 364 metrokoa (hegoaldeko pista).

Mola jenerala (1936ko matxinadako buru nagusienetariko bat) hegazkin istripu batean hil zenean, aireportu honetara zuzentzen ari zen, hain zuzen ere, eta horregatik, izena aldatu zioten eta geroztik, “General Mola” deitzera pasa zen eta hegazkintza zibilerako erabiltzeari utzi zitzaion.

Gudan zehar, armada frankistaren hegazkinek eta Alemaniako Cóndor Legioak erabili zuten. Esate baterako, aireportu honetatik atera ziren Durango (1937ko martxoaren 31) eta Gernika (1937ko apirilaren 26) herriak bonbardatzeko agindua zuten hegazkinak. Gerra eginkizunetarako azpiegitura hornitzeko helburuarekin, zenbait instalazio eraiki zen, besteak beste, munizioak gordetzeko bunker handi bat. Azken hura gaur egun oraindik mantentzen da, sarrerak itxita dituen arren. Lehenengo garai honetan zenbait hangar eta bestelako sail ere eraiki zen.

1946ko uztailean hegaldi zibilak berriz baimendu ziren, baina jarduerak gutxi iraun zuen eta sei hilabete ondoren, blokeatu egin ziren, 1948. urtera arte. Orduan, lurraldeen jabetza Aire Ministerioari egokitu zitzaion, Arabako Aldundiak eta Gasteizeko Udalak lagata.

Baina eragiketa honek ez zuen aireportuaren erabilera egonkortu eta 1957. urtean berriz itxi egin zen. Izan ere, aireportu hau gatazkatsua izen zen, pistari 200 metro gehiago gehitu baitzitzaizkion, errepide Nazionalarekin mugatzen zen hegoaldeko aldetik eta une horretatik aurrera, ibilgailuen pasabidea eten egin behar izan zen hesi batzuen bidez, hegazkin bat lurreratu edo aireratu behar zen bakoitzean.


1966. urtean, aireportuak hegaldiak berreskuratu zituen, baina kasu honetan, hegaldi pribatuak edo hegazkin txikiak ziren soilik.

Vitoria-Gasteizek ez zuen hegaldi erregularrak barne hartzeko gai zen aireporturik, beraz, azpiegitura hau Forondatik gertu eraikitzen hasi zen, alegia, Vitoria-Gasteiz udalerrikoa zen herri entitate bat. 1972. urtean, haren eraikuntza ontzat eman zen eta 1980. urtean inauguratu zen Euskal Herriko aireportu nagusi bilakatzeko helburuarekin.


Hala ere, aireportuan hasiera batean ezarritako hegaldi erregular eta chárter desberdinak pixkanaka kentzen joan ziren, beraz, bertako jarduera nagusi bakarra merkantzien garraioa da, pistaren luzerari eta bertako topografiaren ezaugarriei esker, zama hegazkin handiak lurreratu daitezkeelako.




Ortoargazkia 1956-1957, hegaldi amerikarra, B segida. Iturria: Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco. geoEuskadi; Geografia Institutu Nazionala. 2015eko hiri izaerako geruza gainjarrita. Gaur egun erabat urbanizatutako zonalde bat da eta munizio bunkerra kontserbatzen da bakarrik.



Ortoargazkia 1945-46. Hegaldi amerikarra, A segida. Iturria: Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco. geoEuskadi; Geografia Institutu Nazionala. Madril-Irun errepide orokorrak pistaren hegoaldea mugatzen du.





Ortoargazkia 1956-1957, hegaldi amerikarra, B segida. Iturria: Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco. geoEuskadi; Geografia Institutu Nazionala. UTM 30N ETRS89 // X: 528581.9046 // Y: 4744395.9141 // Z: 518 m.

1 Jatorrizko pista. 2 Errepidearen hegoalderantz luzatutako zatia. 3 aparkatzeko zabalgunea. 4 errodadura pista edo iparraldeko burua. 5 errodadura pista edo hegoaldeko burua. 6 Munizioen bunkerra. 7 Aireportuak gurutzatutako N1 errepidea.

Ikus daiteke Madril-Irun errepide orokorraren hegoalderantz luzatutako pistaren zatia (2).

Ortoargazkia 1984-1985. Iturria: Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco. geoEuskadi; Geografia Institutu Nazionala. Pistaren hegoaldeko sektorea ikus daiteke (dagoeneko ez da erabiltzen), N-1 errepidea harekin gurutzatzen eta kamioetarako aparkaleku gisa erabiltzen delarik.